

MATEMATIKA

7. gaia

1. Adierazi zenbaki hamartar gisa.

- 4 hamarren
- 9 hamarren
- 7 hamarren
- 345 milaren
- 27 milaren
- 9 milaren

2. Idatzi $>$ edo $<$.

- 45,78 ☐ 46,6
- 8,67 ☐ 8,76
- 3,45 ☐ 4
- 15,78 ☐ 15,8
- 67,32 ☐ 67,331
- 25,1 ☐ 25,006
- 8,659 ☐ 8,72
- 4,098 ☐ 4,09
- 3,12 ☐ 3,122

3. Ordenatu zenbaki multzo bakoitza, adierazitako moduan.

Txikienetik handienera 6,7 6,69 6,689 6,702

Handienetik txikienera 25,9 25,88 25,89 25,878

4. Hurbildu zenbaki hamartar bakoitza adierazitako unitate-mailara.

Batekoetara: 6,7 29,44

Hamarrenetara: 4,96 14,15

Ehunenetara: 6,312 9,521

5. Adierazi zatiki bakoitza ehuneko gisa, eta dagokien zenbaki hamartarra.

$$\frac{45}{100}$$

$$\frac{8}{100}$$

$$\frac{12}{100}$$

$$\frac{70}{100}$$

6. Kalkulatu ehuneko hauek:

250en % 6

320ren % 25

350en % 60

7. 2017an, nire auzoko kultura-etxeak 850 bazkide zituen. 2018an, bazkide kopurua % 24 handitu zen. Zenbat bazkide zeuden 2018an?

DATUAK

8. Atzo, 300 € nituen. Diru horren % 75 nire arrebarentzako opari batean gastatu nuen, eta % 10, berriz, komiki batean. Nire aurrezkien zer ehuneko gastatu nuen guztira? Zenbat diru geratu zitzaidan sobera?

DATUAK

9. Baso batek 1.200 zuhaitz zituen 2016an. 2017an, % 25 gehiago zituen, eta 2018an, berriz, 2017an baino % 15 gehiago. Zenbat zuhaitz zituen 2018an?

DATUAK